

ZABALGANA BHI Inktober 2021 Lehiaketak badu irabazlea!

IZARO PARDO DELGADO izan da epaimahaiaren ustez lanik hoberenak egin dituen ikaslea.

Azaroak 5 ostirala, eta goizeko hamaikak. Inktober 2021 Lehiaketak badu irabazlea: DBH3. mailako **Izaro Pardo Delgado**. Ikasle askok parte hartu duten lehiaketa honetan 31 gai ezberdin eman zitzaizkien, urriko egun bakoitzean marrazki bat egiteko.

Lehiaketan parte hartzeko baldintza nagusienetako bat gutxienez hiru marrazki aurkeztu behar zituztela zen. Edozein hiru gai hautatu, eta gai horiek lantzea zen xedea. Irudi asko jaso dira, baina askok ez dituzte hiru lanak entregatu, gutxiago baizik.

Epaimahaiak irabazlearen lanen originaltasuna, teknikaren exekuzio ezinhobea eta gaiak lantzeko modua goraipatu ditu. Hala ere, ez omen da lan erraza izan, aurkeztu diren lanek maila oso altua izan dutelako. Irabazleak Elkar dendetan gastatzeko 40€-ko diru-bonoa irabazi du.

ZORIONAK, IZARO!